

# XEDAPEN OROKORRAK

## OSASUN SAILA

### 4856

*148/2023 DEKRETUA, urriaren 10ekoa, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen Dekretua.*

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 12. artikulua arabera, Osasun Sailari honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie:

- a) Osasun-plangintza eta -antolamendua.
- b) Osasun publikoa, eta elikadura eta ingurumen osasuna babestea.
- c) Zaintza epidemiologikoa.
- d) Farmazia-antolamendua.
- e) Adikzioak.
- f) Sailari atxikita dauden organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen duten arabera.
- g) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.

Halaber, aipatutako dekretuaren arabera, Osasun Sailari atxikitzen zaizkio hala Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoa nola Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (Bioef) sektore publikoko fundazioa.

Martxoaren 31n, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman zen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala.

Dekretu hori, gero, arau hauek aldatu dute:

– Eutanasiaren arloko Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordea sortzen duen maiatzaren 25eko 145/2021 Dekretuaren lehen xedapen gehigarria, zeinak Eutanasiaren arloko Berme eta Ebaluazio Batzordea sortu baitzuen, eta 2. artikuluko 3. paragrafoari i bis) apartatua erantsi baitzion, Eutanasiaren arloko Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordea aipatzeko saileko egituraren barruan.

– Euskadiko Medikamentuen Gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoa sortzeko eta haren funtzionamendua arautzeko abenduaren 14ko 244/2021 Dekretuko azken xedapenetako lehenengoa. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 252. zenbakian argitaratu zen, 2021eko abenduaren 20an, eta 2. artikuluko 3. paragrafoko h) letra aldatzen du, Euskadiko Medikamentuen Gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoa aipatzeko.

Orain, dekretua aldatzen da, errealitatera egoki daitezen Osasun Saileko sailburuordetza bien egitekoak; hau da, Osasun Sailburuordetzako eta Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzako egitekoak. Izan ere, dekretuan azaldu nahi da zer egiteko betetzen dituen Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzak kontrolatzeko nola betetzen diren Osasun Sailak Osakidetzarekin sinatzen dituen programa-kontratuei lotutako aurrekontuak, eta Sailak egiten duen edozein kontratazio sanitario.

Horretarako, proposatzen da egiteko horren aipu espresua sartzea, eta ezartzea zein den Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzako lurralde-ordezkarien mendekotasun hierarkikoa. Hori gorabehera, mantendu egingo da ordezkarietek dagokien zuzendaritzekiko duten mendekotasun funtzionala.

Egitura-dekretuko 13. artikulua aldatzen da, honela: Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzari kontrol-funtzio espezifikoak esleitzen zaizkio aurrekontuak egikaritzeko orduan, eta kontrol- eta jarraipen-lanak egiteko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak sinatzen dituen programa-kontratu guztiei eta Osasun Saileko lurralde-ordezkariek sinatzen dituztenei, baita Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzek egiten dituzten kontratu sanitarioei ere. Gainera, 15. artikulua aldatzen da, era honetan: ezartzen da Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak esleitua duela zerbitzu sanitarioak kontratatzeke jarraibide eta irizpide orokorrak prestatzeko lana, eta egiteko hori Osasun Sailburuordetzarekin batera egin behar duela. 17. artikulua ere aldatzen da, eta ezartzen da ezen lurralde-ordezkariek, organikoki, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzaren mende daudela.

Azkenik, 2. artikulua 3. paragrafoko b) apartatuan egiten den aipamena egokitzen da, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua arautzeko indarrean dagoen arauari egokitu ere; arau hori, izan ere, abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua da, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzkoa, eta ordeztu egin du han aipatzen dena.

Aldaketa horien ondorioz, Osasuneko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2023ko urriaren 10ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldatzea Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 2. artikuluko 3. paragrafoaren b) apartatua.

Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 2. artikuluko 3. paragrafoaren b) apartatua aldatzen da, eta eduki hau ematen zaio:

«b) Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua, Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioari buruzko apirilaren 7ko 150/2022 Dekretuan xedatutakoaren arabera».

Bigarren artikulua.– Aldatzea Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 13. artikulua 1. paragrafoko c) apartatua.

Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 13. artikulua 1. paragrafoko c) apartatua aldatzen da, eta eduki hau ematen zaio:

«c) Kudeaketa ekonomiko eta aurrekontu-arlokoa eta kontrol- eta jarraipen lanak egitea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzak eta Osasun Saileko lurralde-ordezkariek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarekin sinatutako programa-kontratu guztietan, bat etorri 13. artikulua honekin, eta Sailaren lurralde-ordezkaritzek egindako kontratazio sanitario orotan».

Hirugarren artikulua.– Aldatzea Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 15. artikulua 1. paragrafoko c) letra.

Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 15. artikulua 1. paragrafoko c) letra aldatzen da, eta eduki hau ematen zaio:

«c) Osasun Sailburuordetzarekin batera, gidalero eta irizpide nagusiak lantzea zerbitzu sanitarioak kontratatzeke, haien definizio estrategikoaren arabera. Horretarako, irizpide bereziak proposatuko

ditu, helburu eta baliabide ekonomikoak esleitzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei –programa-kontratuen bitartez– eta beste agente sanitario batzuei –kontratazio-ereduen bitartez–; era berean, kontratazio-plan orokorrak ezarriko ditu, hala eskatzen duten prestazioetarako».

Laugarren artikulua.– Aldatzea Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 17. artikuluko 2. paragrafoa.

Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 17. artikuluko 2. paragrafoa aldatzen da, eta eduki hau ematen zaio:

«2.– Lurralde-ordezkaritzek ordezkari bana izango dute, zeina izango baita Osasun Sailak lurralde historikoan izango duen ordezkari gorena.

Lurralde-ordezkaritzak, hierarkikoki, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzaren mende egongo dira. Funtzionalki, Osasun Saileko zuzendarien mende egongo dira, gaiaren arabera.

Lurralde-ordezkariek kontratazio-organo espezifiko gisa jardungo du, eta, zerbitzu-zorroko zerbitzu sanitarioen prestazioa kontratatzeari dagokionez, kontratazio-organo gisa dagozkion egitekoak gauzatuko ditu baldin eta zerbitzu horiek berari dagokion osasun-barrutira zuzendutakoak badira; bat etorritik sailak ezartzen dituen gidalero eta irizpideekin.

Halaber, lurralde-ordezkariei dagokio bere lurralde-eremuan programa-kontratuak izenpetzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zerbitzu sanitarioko erakundeekin.

Lurralde-ordezkaritzetako titularrek eskumena izango dute beren eremuan egin beharreko funtzionamendu-gastuak baimendu eta kontratatzeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuak arautzen dituen funts aurreratuen indarreko araubidearen baitan eta araubide hura garatzeko arautegiaren eremuan; hargatik eragotzi gabe Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzako eta Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorrerako Zuzendaritzako titularrei ematen zaizkien ahalmenak».

## AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urriaren 10ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Osasuneko sailburua,  
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.